



Hirugarren olatu errepresiboa



DAVID BOU
DIRECTA-KO KAZETARIA

Zarzuclan eta Moncloan ez dakite nola lortu. Autonomia kentzeak, erbesteak eta kartzelak ez zuten geldiarazi. Inhabilitazioek, pandemiak eta hauteskunde inposaketa berriak ere ez. Kataluniako gehiengo independentistarekin amaitzeko enegarren trikimailuak porrot egin du berriro, eta, gainera, pixka bat ezkerreko lerratu du independentismoa.

Oraingoan, operazioak *Illa efektua* zuen izena. Aurrekaririk gabeko kanpain mediatiko batek eta parte-hartzearen beherakadaren iragarpen egoki batek bultzatuta etorri da. Agian oraindik ez dute ulertu *botoa emateak zer baitetarako balioko balu, debekatuta legoke* leloa balekoa egin zuten egunetik lau urte betetzeko bidean gaudela. Eskubide hori erabili nahi izateagatik jipoitu zuten jendea ez da etxean geratzen, badakielako orain beren botoak min egiten diela.

Boteretsuengandik ikasi dugu, besteak beste, ez dakitela porrotak onartzen. Zaurituta daudenean oldarkorrako erasotzen dute beti, eta normalean mendekuren bat dute aurreikusia. Ez sinetsi kasualitateetan. Hauteslekuak itxi eta 48 ordura, mossoei Lleidako unibertsitatean sartzeko agindu zieten Pablo Hasél rap abeslaria atxilotzeko. Aurreko astetik zuten egiteko aukera, baina karta gorde zuten, nahi modura jokatzeko.

Eskubideen eta askatasunen murrizketaren kontrako olatuak bi aste iraun zuen, baina ondorio errepresiboak den-

Azken hilabeteko mobilizazio zikloan 142 pertsona atxilotu dituzte Katalunia osoan, 2017ko urritik 3.200 pertsona baino gehiago izan dira errepresaliatuak arrazoi politikoengatik

boran luzatuko dira. Lehenik eta behin Hasélentzako, espetxeratu zutenetik beste auzi batzuetako zigorrak pilatu baitizkiote. Helburuak argia dirudi: eskarmentatzea. Rap abeslaria, baina, batez ere, bere askatasuna eskatzeko manifestatu diren guztiak: “Ez du ezertarako balio izan”, sinetsarazi nahi diete.

Azken hilabeteko mobilizazio zikloan 142 pertsona atxilotu dituzte Katalunia osoan, 2017ko urritik 3.200 pertsona baino gehiago izan dira errepresaliatuak arrazoi politikoengatik. Azken atxilotuetako bederatzi behin-behineko espetxealdian daude: eskoziar bat, sei italiar, frantziar bat eta kataluniar bat. Lehenengoa, ihes egiteko arriskua eta Brexita argudiatuta, Erresuma Batua euroaginduen mekanismo komunetik kanpo geratu delako ofizialki. Gainerako zortziak, izaera anarkistako erakunde

kriminal hipotetiko baten eraikuntzari esker, Bartzelonako istiluak planifikatzen eta exekutatzen omen zituena –azken horietako bat karguekin aske utzi berri dute–.

Gobernu berri bat eratzeko atzera-kontu betean, ordena publikoa kudeatzeko eredua eztabaidagai da beste behin baina, orain, negoziatorako elementua ere bada. Hasél Ponent-eko espetxean sartu zuten egun berean, 19 urteko neska batek begi bat galdu zuen Mossos d'Esquadra Brigada Mugikorrak (Brimo) jaurtitako foam bala baten-egatik. Lehen olatuan, urriaren 1ean, Roger Español izan zen Espainiako Polizia Nazionalaren tiro baten erruz begibakar geratu zena. Auzitegi Gorenaren epaiak 2019ko urrian eragindako bigarren olatuaren ondorioz, lau gaztek utzi zioten ordura arte bezala ikusteari.

Azken legegintzaldian, Junts eta ERC-ren gobernuak ez zen gai izan Generalitatea akusazio partikular gisa erretiratzeako manifestarien aurka irekitako hainbat eta hainbat prozesu judizialetan, zeinetan polizia autonomikoak dauden salatari gisa. Agenteek beren jarduera -protokoloak errespetatzea, jarduera polemikoak fiskalizatzea eta erantzukizunak argitzeko neurriak hartzea ere ez dute lortu. Puntu honetara iritsita, beti galdetzen diot neure buruari: nola atera ote zen Trapero absolbituta, nondik eta Espainiako Auzitegi Nazionaletik? Madrilek ez du traidorerik ordaintzen? ●